



Paisaia batetik bestera

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.










HELBURUAK

- Paisaia osatzen duten elementuak ezagutzea.
- Elementu horien arteko eraginaz jabetzea.

EKINTZA HONETAN, paisaia osatzen duten elementuak ezagutzeko aukera izango duzue. Paisaia batetik bestera elementu horien arteko harremana nola aldatzen den ere jabetu ahal izango zarete.

Prozedura:

Aukera itzazue erabat ezberdinak diren bi paisaia (adibidez, hiriko kale bat eta parkea; mendia eta herria; itsasaldea eta barrualdea...). Aipatu dituzuen lekuetan izan ostean, bete ondorengo taula (kontuan hartuz ez dela erraza zenbait sentazio era zehatz batez deskribatzea, hobe izango duzue modu abstraktu batez egitea).

							
			Ikusten duzuna	Usaintzen duzuna	Entzuten duzuna	Sentitzen duzuna	Iradokitzen dizuna
ERLIEBEA	Mendiak, ibaiak, haranak, lautadak, itsasoa...						
KLIMA (EGURALDIA)	Eguzkia, hodeiak, haizea, euria, temperatura, hezetasuna...						
FLORA/ FAUNA	Animaliak, goroldioa, landareak, belarra, zuhaitzak, onddoak...						
GIZAKIAREN EKINTZA	Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, industria, eraikuntza, merkataritza, garraioak...						

Orain, hurrengo galderei erantzun eta atera itzazue ondorioak:

- Zein da paisaia bakoitzean elementu nabarmenena?
- Ikusmenaz gain, zer gehiago erabili duzu paisaiari behatzeko?
- Ezer falta al da paisaiaren batean? Eta soberan ba al dago ezer?

Iturria:

BASAURIKO INGURUGIRO MINTEGIA. **Basauri goitik begira**. Basauriko PAT - COP.

